talaia
gogoetarako gunea

9. zkia
2020ko apirila

# MIGRATZAILEAK

## KAPITALISMOAREN BIZITZA BAZTERTUAK

Ane Irazabal • Raul Sánchez Cedillo • Amaia Aurrekoetxea & Arantxa Vazquez
Irungo Harrera Sarea • Eunice Romero • Langile migratzaileak
Sussane Schultz & Martin Rapp • Arkaitz Fullaondo • Artea Sarea
Red de Mujeres Migradas y Racializadas de Euskal Herria

iparhegoa
Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa

LAB
ekintza soziala

Talaiaren 10. alea duzu esku artean, gogoetarako gunea. Argitalpen bat ez ezik, hausnarketa eta eztabaidarako espazioa baita hau. Talaiak, LAB-eko Ekintza Sozialeko egiturak eta Ipar Hegoa Fundazioak formazio politiko eta sozialerako egiten duten eskaintzaren parte izan nahi du.

Ale honi dagokionez, azkenaldian oihartzun berezia izaten ari den gai bat izango dugu hizpide: migrazioak. Azken aldian errefuxiatuen krisiak, Moriako kanpamentuaren suteak, eskuin muturraren gorakadak, EBko politikek, migratzaileekin loturiko lan gatazkek... pisu berezia izan dute, eta guzti hauen inguruan hausnartzea bilatu dugu.

Horretarako, Ane Irazabal kazetariak, Greziako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi den egoera azaldu digu. Susanne Schultz eta Martin Rapp, migratzaileen eskubideen aldeko ekintzaileek ordea, Alemanian mugimendu antiarrazistetatik burutzen duten lanaz hausnartu dute. Raúl Sanchez Cedillok aldiz, Europar kapitalismoa migratzaileekiko inposatzen ari den apartheid egoera mahaigaineratu digu idatzi duen artikuluan. Horrez gain, Eunice Romero soziologoak, Kataluniako prozesu subiranistaren ikuspegitik migratzaileen gaiaz egiten duen irakurketa luzatu digu. Kanpotik bildu ditugun inspirazio horiez gain, badira Euskal Herrian ere gai honi erantzun praktikoak ematen dizkieten esperientziak, Irungo eta Arteako Sareak kasu, pare bat erreportairen bitartez bildu ditugunak. Ikupesgi-n ikertzailea den Arkaitz Fullaondok berriz, euskal migrazioa datuetan kokatu digu. Lan munduari dagokionez, Edith Yolanda Atoy, Rachida Allali, Houssein Yagoubi, Adil Lasri eta Erika Vanessa Velásquezek beraien esperientzietatik abiatuz langile migratzaileek pairatzen dituzten zapalkuntza egoerak azaldu dizkigute. Horri loturik, Oskar Goldaraz, Edurne Larrañaga eta Iñigo Alonso sindikalismotik diskriminazio egoera horiei eman beharreko erantzunez eta aurretik ditugun erronkez solastu dira. Gainera, Arantza Vázquez eta Amaia Aurrekoetxeak migratzaileen eta euskararen egoeraz gogoetatu dute. Bukatzeko, Red de Mujeres Migradas y Racializadas kolektiboak berain jardunaren berri eman digute.

Tienes entre manos el décimo número de la revista Talaia, un número en el que hemos tratado de reflexionar sobre el fenómeno migratorio, partiendo desde un perspectiva global, hasta llegar a la realidad que se vive en Euskal Herria en el día a día. En esta edición hemos trabajado temas como el de los campamentos de refugiados, las políticas impulsadas por la Unión Europea, el ascenso de la extrema derecha, las respuestas sociales organizadas en nuestro pueblos, la relación entre los migrantes y el euskara, la realidad de las trabajadoras migrantes y la respuesta sindical ante esta... Compuesto por diferentes puntos de vista, esperamos que este trabajo nos ayude a entender y dar salida a los retos que tenemos por delante.

Aldizkari honen edukiak Creative Commons - Aitortu - Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo baldintzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual.

Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoría.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contribuciones bajo la misma licencia que el original.



**3** Ane Irazabal



**6** Raul Sánchez Cedillo

**9** Migratzaileak herrira, euskarara

**12** Irungo Harrera Sarea



**14** Eunice Romero

**17** Langile migranteen bizipenak

**20** Solasaldia LABeko antolakuntzako kideekin



**24** Sussane Schultz & Martin Rapp



**27** Arkaitz Fullaondo

**30** Artea sarea

**32** Red de Mujeres Migradas y Racializadas de Euskal Herria

# «Europak errefuxiatuei bidali nahi dien mezua hau da: ez zarete ongietorriak, hona ez duzue etorri behar»

**ANE IRAZABAL** (Arrasate, 1984). Historian eta Ikus-Entzunezko Komunikazioan lizentziatua. Kazetaria. Palestinan hasi zen lanean eta ordutik Ekialde Hurbilean eta Italian aritu da. Azken urteetan mediterraneoko migrazioen eta errefuxiatuen auziak jarraitu ditu.

**Azken urteetan errefuxiatuen gaia jarraitu duzu eta besteak beste Moriako egoeraren lekuko izan zara. Siriako gudak, besteak beste, bultzatutako errefuxiatu olde handitik hasi eta pandemiaraino. Eman zezakeen gauza batzuk ezin zutela okerrera egin, baina ikusi dugu egoera gero eta makurragoa dela. Zer ikusi duzu zuk?**

Guk Moriaren eboluzio guztia ikusi dugu, 2015ean sortu zenetik gaurdaino. Hasiera batean hotspot edo erregistro gune bezala sortu zen. Gero, Europar Batasunak eta Turkiak mugen kontrolerako akordioa sinatu zutenean, erretentzio gune bilakatu zen. Hori izan da eboluzioa, suteak sortu eta kanpalekuak zeharo desagertu diren arte.

Moria, Europaren gelditasunaren eta errefuxiatuen dramaren inguruan izan duen politika erasokorraren sinbolo bilakatu da. Zergatik? Alde batetik, asilo eskaerak ze gaizki funtzionatzen duten ikusi dugulako -errefuxiatuek hilabeteak eta urteak pasa dituzte gune horretan haien asilo prozedurak aurrera eramateko inolako erraztasunik gabe- . Beste alde batetik, argi geratu delako, eta kanpaleku horrek argi erakutsi duelako, nola tratatzen dituen Europak asilo eskatzaileak, errefuxiatuak: animaliak izango balira bezala, inolako baldintza duinik gabe.



Beraz, gelditasunaren, inmobilismoaren eta sentimendu eta humanismo faltaren sinboloa izan da Moria azken urteetan.

**Milaka pertsonen bizitzak kolokan daude orain, eta denbora luzez bizi baldintza oso kaskarretan daramatzatela erantsi behar diogu. Zer gerta daiteke? Erantzunik emango zaio egoerari?**

Lesbosera joaten garen bakoitzean daukagun sentsazioa da egoerak ezin duela okerrera egin, eta bueltatzen garen bakoitzean egoera okerrago dago. Horrek izugarrizko tristura eta etsipena sortzen du.

Orain, pertsona hauek guztiek duten etorkizuna ez da batere argia. Momentuz ikus daitekeena da Greziako agintariek derrigortu egingo dituztela denak kanpaleku berrira sartzen. Eta, kanpaleku berria zentro itxia izango dela, hau da, posible dela sartzea, baina ez ateratzea. Gainera, badirudi asilo prozedurak gehiago gogortuko direla testuinguru berrian.

Ondorioz, ikus daiteke Greziako gobernuak erabaki duela errefuxiatuak zigortzea suteagatik. Autokritika egin beharrean eta pentsatu beharrean ze baldintzek bultzatu duten suteak piztera - hemen guk gure buruari egin beharko geniokeen galdera ez da nork piztu dituen suteak, baizik eta ze baldintzek bultzatu duten halako egoera batek eztanda egitea- Greziako gobernuak egin duena da errefuxiatuak suteengatik zigortu.

Testuinguru horretan errefuxiatuek ez dute alternatiba handirik. Izan ere, informazio falta handia dago, ez dakite zer gertatzen ari den, eta aholkulari legalak falta zaizkie. Nolabait esatearren, agintariak eta polizia errefuxiatuen nekearekin eta gosearekin jolasten ari dira. Eta, oinarrizko baldintzak falta zaizkizunean, hau da, gose zarenean eta izugarri nekatuta zaudenean, oso erraza da ahultasun horrekin jolastea eta probetxu hartzea.

**Hau dena aspalditik datorren egoera baten eztanda baino ez da. Nola iritsi gara honaino? Zein da egiten duzun analisia?**

Azken bost urteetako Europar Batasunaren migrazio politiken isla da Moria. Zeharo baztertu den eremu bat izan da. Europako agintarientzat hau Greziaren arazo bat zen, Greziako agintarientzat Lesboseko arazo bat… eta bitartean kanpamentua uharte baten baitako kartzela bilakatu da, hau da, kartzela bikoitza.

Utzikeria eta gehiegikeriek - izan ere errefuxiatuek ez dute inongo laguntzarik jaso azken bost urteetan; animaliak bezala bizi ziren, edateko urik gabe, ia komunik gabe, janari eskasa jasotzen…- eragin dute egoerak azkenean eztanda egitea.

Hau ez da Morian gertatzen den lehen sua, piztu dira beste su batzuk. Baina, azken sute honek egin duena da kanpamentua zeharo suntsitu. Kanpamentua suntsitzeak ordea, ez du Europako migrazio politiken suntsipena ekarri, ez da autokritikarik egin. Ez da pentsatu zer egin daitekeen pertsona hauen guztien egoera hobetzeko. Orain arteko eredua berriz ere errepikatzen ari dira, beste kanpaleku itxi bat irekiz. Beraz, ez dugu azken bost urteetan gertatu denaren inguruan ezer ikasi.

> «Gelditasunaren, inmobilismoaren eta sentimendu eta humanismo faltaren sinboloa izan da Moria azken urteetan.
>
> Kanpamentua suntsitzeak ordea, ez du Europako migrazio politiken suntsipena ekarri, ez da autokritikarik egin.
>
> Eskuin muturra eta talde faxistak gai izan dira haserrea kapitalizatzeko.
>
> Orain berriz ere eraiki beharko dira migrazio eta asilo politika.»

**Ikusi dugu eskuin muturrak bere diskurtsoak gogortzeaz gain ekintzak ere gauzatu dituela. Hau da, ez da bere diskurtso baztertzailera mugatu, baizik eta errefuxiatuen kontrako erasoak eta hauei laguntzen dieten gobernuz kanpoko erakundeen kontrakoak burutu dituztela. De facto, beraien politika ezartzen ari dira? Grezian ez ezik, Italian, Hungarian,… eskuin muturrak milaka eta milaka errefuxiatu eta migratzaileren kontra gauzatzen ari den ildoaz zer azterketa egiten duzu?**

Eskuin muturrak oso ondo lortu duela jendearen ezinegona kapitalizatzea. Egia da Lesboseko herritarrak, eta Greziako beste uharte batzuetako herritarrak, haserre daudela, ikusten dutelako horrelako egoera batean bakarrik utzi dituztela, bakarrik sentitu direla. Bai Europaren partetik, baita Greziako agintarien partetik ere.

Horri loturik, protestak egon dira azken asteetan Lesbosen. Eta, egon da arrazoi bat, bai Lesboseko herritarrak, bai errefuxiatuak batu dituena. Arrazoi

hori da inork ez zuela beste kanpamentu berri bat irekitzerik nahi. Herritarrek ez zuten Moria berriz ere konpontzerik edo berreraikitzerik nahi, eta errefuxiatuek berdin. Errefuxiatuek, kontinentera joan nahi dute hasiera batean, eta, gero, Europako beste herrialde batzuetara lekualdatuak izan.

Horrenbestez, eskuin muturra eta talde faxistak gai izan dira haserre hori kapitalizatzeko, haserre horri erantzun sinpleak emateko; errefuxiatuek alde egin behar dute, errefuxiatuak dira gertatzen ari zaizkigun arazo guztien jatorria… Eta, zer gertatu da? ba alderdi tradizionalak, demagun, faxistak ez diren alderdiak, bai ezkerrean, bai eskuinean, bai zentroan kokatuak, ez direla gai izan mezu horiei aurre egiteko. Ez hori bakarrik, eskuin muturraren politikak mimetizatzera pasatu dira.



Uste dut hau dela azken urteetako europar alderdi politiko demokratikoen porrotik handiena. Zeren eta, ez dira gai izan egoera honi irtenbide bat emateko, irtenbide duin bat emateko, eta, aldi berean, eskuin muturraren esloganak kopiatuz politika itxiak eta xenofoboak aurrera eramaten aritu dira. Baina jendeak, originalaren eta kopiaren artean, nahiago du originala.

**Azken urteetan, Europak bere mugak externalizatzeko ahaleginak egin ditu (Turkiarekin sinatutako akordioa horren adierazle) eta estatuek beraienak hesiz josi dituzte. Horrela Schengen eremua bera kolokan jarri dela idatzia duzu. Zein irakurketa egiten duzu azken urteetan Europar Batasunak (EB) bultzatu dituen migrazio politiken inguruan?**

Europak bidali duen mezua, errefuxiatuei bidali nahi dien mezua, hau da: ez zarete ongietorriak, ona ez duzue etorri behar. Eta, horretarako estrategia guztiak aurrera eramaten ari da.

Estrategia horietan nagusia, mugen externalizazioa da. Ez bakarrik Turkiarekin sinatutako akordioarekin, baita Libian Tripoliko gobernuarekin (miliziek errefuxiatuak Libian harrapatuta mantendu ditzaten) eta Marokorekin azken urteetan sinatu dituen akordioekin aurrera eraman dena. Ikus daiteke akordio horiek sarritan diktadoreekin, hau da, inolako balore demokratikorik ez dituzten agintariekin sinatzen dituztela. Mugen extrenalizazioa ez da gauza berria, baina partxe bat da, bizkarra ematen dio egoerari, eta ez dio aurre egiten datozen urteetan Europarena izango den erronkarik handienetakoari.

Argi dago Europako agintariak hurrengo hauteskundeak irabaztera begira baino ez daudela, eta inork ez daukala belaunaldi ikuspegiko konpromiso bat, konpromiso intergenerazional bat. Horrek eragiten du oso hankamotz geratzen ari garela horrelako erronka handi bati aurre egiterako orduan.

**EBk bere Immigrazio- eta asilo-ituna berrituko du laster. Zerbait berririk espero daiteke bertatik edo orain arteko logika berdinarekin jarraituko da? Nork du benetako lidergoa afera honetan?**

Uste dut inork ez daukala Dublingo akordioak berrizteko, edo akordio berri bat hezurmamitzeko, ez borondate, ezta mailarik ere. Merkelek agian erakutsi zuen borondate hori, 2015ean prest egon baitzen miloi bat pertsona jasotzeko (ez bakarrik interes humanitarioen ondorioz, baita interes ekonomikoen ondorioz ere). Baina, Merkelen azken garaiak, azken uneak, bizi ditugu. Merkel joan egingo da, eta ez dakigu Alemanian nork irabaziko dituen hurrengo hauteskundeak, zein izango den Alemaniako lider berria. Alemaniako lider berria esanda, Europako lider berria ere esan daiteke, badakigulako zein den Europaren motorra eta zeinek daukan azken hitza kasu askotan.

Beraz, ez dago benetan erronka honi gogoz ekiteko intentziorik, eta nik ez dut ezer espero politika berrien inguruan. Hemen egin behar dena da Dublingo sistema berrinterpretatu, beste legedi bat antolatu. Dublingo akordioa testuinguru zeharo desberdin batean eraiki zen, eta, horrenbestez, orain berriz ere eraiki beharko dira migrazio eta asilo politikak. Baina, Europar Batasuneko kideen baitan dagoen banaketa ikusita, bizi dugun testuinguru partikular honetan, oso zaila iruditzen zait gai honi gogor eta serioski jorratzeko intentzioa egoterik.

# El patrón nos quiere apartados

## Hacia el capitalismo de apartheid en Europa

El año 2020 se ha ganado a pulso el derecho de ser uno de los grandes puntos de inflexión histórico mundiales del siglo XXI, y cuando escribo esta contribución el peso de la incertidumbre sigue siendo abrumador respecto a la claridad de las tendencias en lo político y en lo social. Pero sí se puede afirmar que la crisis pandémica del Covid-19 está funcionando como un acelerador y un catalizador de procesos que ya estaban en curso desde hace décadas. El principal proceso afectado, qué duda cabe, es la crisis de sostenibilidad del neoliberalismo en todo el orbe. La depresión económica de dos dígitos en casi todos los países, provocada por la parálisis de la actividad económica —salvo China, sus satélites económicos y los pocos países menos integrados en el mercado mundial— es un toque de difuntos para el régimen neoliberal vigente desde hace 40 años en el mundo occidental. Desplome de los sistemas sanitarios; incapacidad de coordinación de esfuerzos y recursos entre territorios; chantaje y aprovechamiento de la situación por parte de las industrias farmacéuticas y sus intermediarios; primacía obscena de la ganancia, el dividendo y la renta parasitaria sobre las vidas y la rentas del trabajo dependiente por parte de bancos, fondos de inversión, corporaciones y grandes empresas industriales y de servicios… Los resultados de esta prueba de stress para los regímenes neoliberales son demoledores.

No en vano, el desconcierto y el miedo dominan los espíritus de las cabezas pensantes del neoliberalismo. Predomina la conciencia de que si no se produce un giro de timón en la distribución de la riqueza, en el papel de la inversión pública, en las políticas macroeconómicas de control de la inflación y en el control de las emisiones de $CO_2$, de la depresión global desencadenada por la pandemia puede surgir un escenario aún más dantesco de colapso de la civilización capitalista. Así que tenemos que acostumbrarnos a leer, por ejemplo, que el FMI declare el final de las políticas de austeridad y recomiende despreocupación en el gasto público y el regreso del Estado emprendedor como actor principal de un capitalismo de servicio público. ¿De veras? ¿Así de sencillo?




**RAÚL SÁNCHEZ CEDILLO** es activista y escritor. Miembro de fundaciondeloscomunes.net

### LA IRREVERSIBILIDAD NEOLIBERAL Y LA DERROTA HISTÓRICA DEL MOVIMIENTO OBRERO OCCIDENTAL

Para qué extenderse sobre lo obvio: el objetivo fundamental de la contrarrevolución neoliberal consistió en desarticu-

lar los contrapoderes del movimiento obrero (organizado y no, oficial y "otro") en el terreno de las relaciones laborales y en el terreno de la reproducción (el salario indirecto que se determina como acceso a la sanidad, educación, derechos reproductivos, pensiones, vivienda digna). Los objetivos pueden resumirse de la siguiente manera: romper la rigidez a la baja de las rentas del trabajo, imponiendo de nuevo el salario como variable dependiente; reconquistar la libertad de circulación de los capitales (financiarización y deslocalización de empresas); pero el objetivo fundamental ha sido el de destruir la sociedad salarial del régimen fordista y el poder social que correspondía a las y los trabajadores.

El historiador económico Robert C. Allen habla de que vivimos una nueva "pausa de Engels": se llama así a la depresión salarial que acompañó en Inglaterra la revolución industrial hasta mediados de la década de 1840, precisamente el periodo que Friedrich Engels describe en su La condición de la clase obrera en Inglaterra en 1845, en el Manchester en el que estaba situada la fábrica textil de la familia. El mismo Robert C. Allen afirma que desde la década de 1970 asistimos a una nueva "pausa de Engels": en el caso de Estados Unidos, mientras que la productividad por trabajador no ha dejado de aumentar, los salarios se han estancado sin remedio1. Pero lo que importa es señalar las causas fundamentales. La crítica dominante al neoliberalismo en la izquierda y en el movimiento sindical se ha fijado en la movilidad del capital y de los mercados: la movilidad, la "fuga" del capital sería uno de sus atributos propios, y lo único que podría hacerse en su contra es resistir, apoyándose en la fijación espacial de las condiciones de producción: capital fijo y fuerzas de trabajo frente a la movilidad del capital financiero. El resultado de esa estrategia de resistencia ha sido negativo. Esto ha llevado, no sólo a un debilitamiento histórico extremo de las fuerzas del trabajo y de los sindicatos de clase, sino también a una degradación misma de la categoría de "clase trabajadora", reducida a un grupo de interés y a una minoría social en las descripciones dominantes de las sociedades occidentales contemporáneas.

El presente y el futuro de los movimientos de clase dependen de un análisis distinto de la contrarrevolución neoliberal, por un lado, y sobre todo, por el otro lado, de un nuevo enfoque de la cuestión de la movilidad y la frontera como problema y motor histórico del capitalismo. Y en esa medida está en juego una concepción de clase de las migraciones, así una línea de clase respecto a las formas de fijación espacial de las fuerzas de trabajo mediante legislaciones de extranjería, permisos de trabajo y fronteras, que construyen mercados de trabajo y de derechos sociales y políticos que segmentan y dividen las fuerzas del trabajo. Está en juego otra política sindical antirracista, en la que no sólo no haya contradicción entre los "valores" éticos y los intereses de clase, sino que ambos formen una sola y misma composición ética y política, capaz de reconstruir contrapoderes de clase y, por lo tanto, de nuevas conquistas para una clase trabajadora transformada en las luchas.

## EL PAPEL HISTÓRICO DE LA MOVILIDAD Y LA AUTONOMÍA DE LAS MIGRACIONES

Podría decirse que, en los orígenes del régimen salarial en el capitalismo, "en principio fue la fuga". Como ha demostrado suficientemente Yann Moulier Boutang en su estudio monumental De la esclavitud al trabajo asalariado2, en el origen del régimen salarial está la fuga de los esclavos, el sabotaje, la imposibilidad de sostener la economía de plantación y de fijar espacialmente al factor trabajo. Esto contrasta con los relatos canónicos del origen europeo del capitalismo, donde el proceso de cercamientos de los bienes comunales (enclosures) en Inglaterra produce lo que Marx llama el "trabajador libre": libre de vender su fuerza de trabajo en las ciudades o perecer. En este relato el capital aparece como dueño y señor de los factores espaciales. El capital mueve a su antojo las fuerzas de trabajo, las arranca de su fijación espacial, destruyendo sus formas de vida.

Pero si consideramos el capitalismo histórico desde el punto de vista de su origen colonial, vemos que lo primero es la fuga, la movilidad autónoma de las fuerzas de trabajo, mientras que lo que define las prácticas del capital es la frontera, el embridamiento, la fijación espacial diferencial de las fuerzas del trabajo. Cuando el capitalismo nace en la colonia y construye un sistema mundo colonial, lo que mueve las mutaciones del capitalismo es la resistencia que se ejerce en la movilidad, la fuga y el sabotaje de las condiciones de producción. Esto cualifica las migraciones como un movimiento histórico de fuga de las fronteras coloniales hacia mejores condiciones de trabajo, entre las colonias y los centros metropolitanos, pero también dentro de los propios Estados-nación. Así podemos entender y reconstruir históricamente, desde el punto de vista de la movilidad autónoma de las fuerzas del trabajo, la formación de las grandes concentraciones industriales urbanas europeas, consolidadas durante los llamados "treinta gloriosos" después de la Segunda guerra mundial, pero también su crisis y su decadencia en las décadas de 1980 y 19903.

Pero las derrotas salen caras, también en los imaginarios y las identidades de clase. Las fronteras y las bridas que el capital crea en su despliegue se ven acompañadas por las formas de racismo obrero, que ven en los migrantes una figura que amenaza su poder de negociación, puesto que, dice la narración racista, están dispuestos a aceptar

peores condiciones de trabajo y son movilizados por el capital precisamente para eso. Se suele citar el racismo supremacista de la American Federation of Labor de Samuel Gompers, que a finales del siglo XIX y principios del siglo XX discriminaba a los trabajadores afroamericanos, a los coolies procedentes de China y, por supuesto, a las mujeres. Pero no se trata de pecados originales de un movimiento obrero aún en los albores de su pleno desarrollo: sigue resultando funesto recordar la campaña "contra la inmigración, oficial o ilegal" del secretario general del PCF, Georges Marchais, durante la campaña presidencial de 1981 en Francia4. Esta línea, la de "inmigración, la que hay y no más", sigue vigente en nuestros días, dentro del mundo sindical y de la izquierda, sin que sea necesaria vitar ejemplos notorios.

## EL APARTHEID COMO INSTITUCIÓN FUNDAMENTAL DEL CAPITALISMO

Es necesario apuntar a lo fundamental: la competencia a la baja entre grupos de trabajadores, en un mercado de trabajo sometido a la frontera y al embridamiento de las fuerzas de trabajo migrante mediante el sistema de los permisos de trabajo, es el dedo que apunta a la Luna. Y la Luna es que las restricciones a la movilidad de unos trabajadores son el problema y no la solución. Cuando existe la limitación de la movilidad y de la libertad de instalación de las y los migrantes, se dificulta la capacidad de fugarse, de escapar en busca de mejores condiciones de trabajo, anulando así el chantaje al conjunto de la clase por parte de los poseedores de capital. En este sentido, la lucha por la libertad de movimiento y de instalación de todas las fuerzas del trabajo tiene la misma potencia decisiva que la lucha por la equiparación de derechos políticos, civiles y laborales de las mujeres.

Esto cobra hoy en Europa mayor importancia si cabe, puesto que, en la crisis terminal del neoliberalismo, las clases poseedoras de capital se inclinan fuertemente por apuntalar este régimen mediante la legalización e institucionalización de formas de apartheid en los países europeos, contando con ganarse así a la "fuerza de trabajo nacional". Se trata de instaurar lo que hasta ahora ha sido una institución colonial en las metrópolis postcoloniales. El nuevo movimiento obrero se juega en la lucha contra este nuevo apartheid su propia existencia como realidad emancipatoria, pero en esa misma lucha se juega el destino mismo del continente europeo. Pero es necesario no olvidar lo fundamental: el apartheid es el continuo, acompaña siempre los orígenes coloniales del capitalismo. Las actuales legislaciones de extranjería, los permisos de trabajo y los sistemas de fronteras internas y externas de la Unión Europea, el Convenio de Dublín sobre la acogida a personas refugiadas, son modulaciones, más o menos intensas, del mismo continuo histórico de apartheid. Tal es la paradoja: hoy la definición de las fuerzas del trabajo va más allá de la figura masculina, blanca, industrial, y se presenta como una multiplicidad rica de diferencias cooperativas, géneros, lenguas y lenguajes, afectos y saberes. Contra esta multitud que (en la lucha, cuando lucha en común) puede ser clase, el dominio del capital sólo puede pasar por separar, embridar, enfrentar y gestionar esa multiplicidad, desfigurándola como un sistema de privilegios y preferencias "nacionales" y/o "blancas".

Lejos de ser una cuestión marginal para el movimiento sindical en nuestros días, se puede decir que la lucha por la libertad de movimiento e instalación de todas las fuerzas de trabajo, contra los sistemas de apartheid de baja o alta intensidad, es el problema principal del sindicalismo emancipador hoy. Todos los esfuerzos que se dediquen a resolverlo en las propuestas, las luchas y las alianzas sociales y políticas serán pocos.

**La parálisis de la actividad económica es un toque de difuntos para el régimen neoliberal.**

**Lo que define las prácticas del capital es la frontera, el embridamiento, la fijación espacial diferencial de las fuerzas del trabajo**

**La lucha por la libertad de movimiento de todas las fuerzas de trabajo, es el problema principal del sindicalismo emancipador hoy.**

# Migratzaileak herrira, euskarara

DON INORREZ, horrela du izena Imanol Ubedak 2018an sortu zuen musika proiektuak. Horrela izendatu dezakegu azken urteotan migratzaileekin bizitzen ari garen egoera. Don inorrez horiei izena jartzetik hasi beharko litzatekeela esaten dugu, hori baita, hain zuzen ere, gure herrira etorri den horri errekonozimendua egiteko bidea. Badirela esateko lehen urratsa. Izena, finean, izana eskuratzeko lehen pausua izan ohi delako. Arinkeriaz jokatu gabe kontuan hartu beharko dira sorterria utzi eta zerotik beste toki baten abiatzera eraman duten faktoreak, eta horiekin lan egiten hastea litzateke egokiena.

Baina bidean ez gara nahasi behar. Migratzaileen integraziorako lan egitea ezin baita inoiz izan gure egunerokoan asimilatzea. Beste herri, kultura, arraza… batzuetako jendearekin elkarbizitza da integraziorako gakoa. Askotan, hemengo kultura inposatu eta kanpotik datozenena ahantzarazteko joera izaten dugu. Hori asimilazioaren integrazio eredua da, hau da, etorkina integratua dago gu bezala bizi denean, asimilatzen dugunean.

Eta marko horretan non kokatu hizkuntza? Nola kokatu euskara?

## EZBERDINTASUNAK IRITSI ZAREN TOKIAREN ARABERA

Euskal Herrian egoera oso ezberdinak aurki daitezke iristen zaren tokiaren arabera. Euskararen egoera administratibo ezberdinek guztiz baldintzatzen dute euskara jasotzeko migratzaileek izan dezaketen aukera. Eta, aukera izanda ere, ez da gauza bera herri batera edo bestera heltzea (adibidez UEMA herri euskaldunen mankomunitateak badauka beste herrialdeetatik datozen pertsonentzako harrera protokoloa, baina Euskal Herriko herri gehienek ez).

Herrialdez herrialde egoera administratiboa oso ezberdina dela esan dugu. Euskal Autonomia Erkidegotik hasiz; euskarak ofizialtasuna legez onartuta duen arren, ez da lehentasunez eskaintzen. Petra Elser, alemaniar migratzaileak 2019an Hamaika Telebistari eskainitako elkarrizketa batean zera zioen: "Egun harrera bidea HHEk da, eta HHE ematen duen mezua da garrantzitsuena gaztelera dela. Hala ere, HHE laguntza handia da, joan zaitezke bertara, dohainik da, eskaintzen dizute zerbait ikasteko, eta hor egiten den bidea gaztelerara da, eta hor sortu behar dira bideak euskal mundura".



**AMAIA AURREKOETXEA** LAB sindikatuko euskara idazkaria



**ARANTZA VAZQUEZ** LAB sindikatuko zeharlerroetako arduraduna.

Baina, EAEn euskara ofiziala izanik eta gaztelera koofiziala, planteamenduak beste bat behar luke, alegia, HHEra (Helduen Hezkuntzak) sarrera eta eskaintza euskaraz izatea. Horrez gain, euskara ikasteko doakotasun eza ere kontuan hartu beharrekoa da, hainbat alditan zenbait eragilek salatu duten bezala. Beste herrialde batera joan eta bertako hizkuntza ikasteko ordaindu behar izateak ez du zentzu handirik, baldin eta helburua datorrena bertakotzea bada. Zergatik egiten da eskaintza doakoa gazteleraz eta ordainpekoa euskaraz?

Nafarroari begiratuz gero, nabarmentzekoa da euskararen ofizialtasuna oraindik ere Euskararen Legeak baldintzatuta dagoela, beraz, ez dute zer ikusi handirik iparraldeko zonalde euskaldunetan edo hegoaldean jaso daitezkeen eskaintzek.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, zer esanik ez. Oraindik orain euskararen ofizialtasuna onartu gabe dago. Frantsesa da estatuko hizkuntza ofizial bakarra, horrenbestez migratzaileei euskara eskaintzearena kontenplatu ere ez da egiten.

### MIGRATZAILEEN HARRERAREN ARDURAK KONPARTITUA IZAN BEHAR DU HERRITARRON ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEAN

Batzuetan, badirudi bertakotzearen ardura migratzaileena beraiena bakarrik dela, administrazioak, eta oro har herritarrek, baliabideak eskainiz nahikoa egiten dugula, bada, ez da horrela izan behar inondik ere.

Herritarrok, gutxika bada ere, gu/haiek dikotomia gaindituz joan beharko gara. Bide horretan, ezinbestekoa da etxeko ateak zabaldu eta etorkinei gure sareetan sartzeko aukera ematea. Finean, guk transmititu behar dizkiegu kultura, hizkuntza eta orokorrean euskararen mundu sinbolikoak dakarren guztia.

Horrez gain, administrazioak berak ere asko du egiteko. Helduen euskalduntzean lehenago ere aipatu dugu akats nabaria dagoela, HHEn egiten den migratzaileentzako eskaintza gaztelera hutsekoa baita. Errazago "integratzeko" aitzakia hartuta.

HHEz gain, Lanbide Heziketaren eskaintza ere badago. Egun, eskaintzen den lan formazioaren %85 inguru gazteleraz ematen da. Egoera honetan, nola azaldu Euskal Herrira datorrenari euskara beharrezkoa dela?

Derrigorrezko hezkuntzan ere hainbat plan daude, besteak beste Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako Programa edo HIPI (Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakasleak) proiektua. Biak ala biak migratzaileen bertakotzea errazteko sortuak, euskarara erakartzeko asmoz egindakoak. Baina, Malores Etxebarriak ARGIAn idatzitako artikulu baten honakoa zioen proiektuaz: "Heziketa inklusiboaz ari gara matrikulazio kanpainetan kolore pixka bat sartu eta etorri berriei gure eskoletan behar dituzten baliabideak eskaintzen ez dizkiegunean".

Horrez gain, kontuan hartzekoa da

Migratzaileen integraziorako lan egitea ezin da inoiz izan gure egunerokoan asimilatzea.

Lan munduan euskara ez da existitzen, eta migratzaileentzat are gutxiago

Gure proposamenetan migrazioa egiturazko gai politiko gisa kokatu beharko da.




egungo egoeran proiektu horiek denak kolokan daudela COVID 19ak azaleratutako krisiaren eraginez eta hezkuntza arloko eragileek salatu dituzten murrizketen ondorioz.

### LAN MUNDUAN ZER?

Lan munduaz eta migratzaileez hitz eginez gero, are eta zailagoa da euskara aurkitzea. Orohar lan munduan euskara ez da existitzen, eta migratzaileentzat are gutxiago.

Lan munduan migratzaileen oinarrizko beharrizanak betetzen ez direla argi dago, eta horrek asko zailtzen du pertsona hauek euskarara egin beharreko hurbilpena. Ala aste beteko kontratuak bata bestearen atzetik harilkatzen, ordutegi jakinik gabe eta hiritartasun paper ofizialik gabe dabilenak euskara ikasteko gogoa izango duela uste al dugu?

Eta ez dago esan beharrik migratzaile asko eta askoren, batez ere emakumeen, eguneroko ogia ezkutuko ekonomiatik datorrela. Datuetan sartzen ez direnak dira horiek. Beraz, nola sartu osatu ezinezko puzzle honetan hizkuntzaren aldagaia?

Lan mundua euskalduntzeko plana aurkeztu berri du Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikako sailburuordetzak. Plan estrategikoa deritzona. Plana aurrerapauso bat denik uka ezinezkoa den arren, akats nabariak dituela argi gelditu da. Lehenengoa, adibidez, langileen ikuspuntuaz ez duela ezer aipatzen. Izan ere, tamainako plan batek lan mundua osatzen duten eragile guztien parte hartzea ber-




matua beharko luke, baina kasu honetan arreta gehiago jartzen da enpresen zuzendaritzetan, euskalduntzeak eragin zuzena izango duen langileetan baino.

Lan munduaren euskalduntzeaz ari direnean zein lan munduz ari diren ere aztertu beharrekoa da. Alegia, ezkutuko ekonomian dihardutenen egunerokoak ba al du lekurik horretan? Edo eta udarako kontratuarekin ostalaritzan lanean dihardutenen egoera ba al dago plan estrategikoan kontuan hartuta?

Argi dago kasu honetan ere, baztertuta gelditu direnak betikoak direla. Hizkuntzaren aldagaia egon badago joko zelaian, baina ordura arte jokatzeko aukerarik gabe zeudenak berriro aulkian gelditzen dira.

## NOLA EMAN BUELTA EGOERARI?

Egin beharreko proposamenaren abiapuntuan migrazioa egiturazko gai politiko gisa kokatu beharko da. Ondoren, hainbatetan aipatu bezala, migratzaileak subjektu politiko gisa hartu beharko dira, eta beraiek hitz egin beharko dute, agendan sartu behar diren baldintzak eta neurriak marrazteko. Eztabaida irekitzeko neurri batzuk proposatzen dira ondoren, orokorrenetatik hasita zehatzagoetara:

- Migratzaileak Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruaren eraikuntzan sartzeko politikak bultzatzea.
- Euskal administrazioei eskumen osoak eska eta beregana ditzatela exijitzea, harrera-baldintza propioak artikulatzeko, gure ehun sozio-produktiboaren arabera eta nazioarteko elkartasunaren eta lankidetzaren ikuspegitik.
- Euskal administrazioei politika publikoetan neurri eraginkorrak har ditzaten eskatzea; Adibidez enpleguan, pertsona migratzaileen diskriminazioari aurre egiteko, emakume migratuen kasuan arreta berezia jarrita.
- EAEko administrazioei atzerritartasun legearen aurkako jarrera har dezaten eskatzea.
- Hemen dauden migratzaile guztiei paperak ematea, eta udal-esparrutik hasita botoa emateko eskubidea aldarrikatzea. Eskubideetan berdintasunik ez badago, zaila da integrazioaz hitz egitea.

## EUSKARAREKIN ZER?

Hizkuntza politika berri, eraginkor eta betearazle baten beharra gero eta nabariago da. Azken urteetan euskalgintza zikloa amaituta dagoela entzuten da batean eta bestean, baina ez da ikusi erabaki ausartik horrek suposatzen duenari erantzuten hasteko. Euskarak esparruak irabazten joatea nahi bada beharrezkoa da ekiten hasteko plan berria diseinatzea, puntu hauen bueltan:

- Euskara ikasteko doakotasuna, pertsona migratzaileak gure hizkuntzara hurbiltzeko bide gisa.
- Formazio profesionala euskaraz eskaintzea, egungo %15eko eskaintza handitzetik hasiz.
- Lan munduaren euskalduntzerako plan integrala egokitzea, benetan langileek dituzten beharrizanak aintzat hartuz.

Beraz, bidean esandakoak kontuan hartuz, DON INORREZ guztiak norbait izaterako bide horretan asko dago/dugu egiteko. Administrazio orokorretik hasi eta lokaletara, lantegitik hasi eta kalera, etxeetatik tabernetara, norbanakotik kolektibora.

Migratzaileek euskara nahi dute, euskal herritarrok migratzaileak nahi ditugu eta euskarak guztiok behar gaitu. Ekin diezaiogun bideari. Luze bezain emankorra izateko aukera asko ditu eta.

Euskal Herrian egoera oso ezberdinak aurki daitezke iristen zaren tokiaren arabera.

Zergatik egiten da eskaintza doakoa gazteleraz eta ordainpekoa euskaraz?

Herritarrok, gutxika bada ere, gu/haiek dikotomia gainditzuz joan beharko gara.




© GARI GARAIALDE / BOSTOK PHOTO

# Birusak eten ez duen joana

Lehengoan Cadizera iritsi zen 50 laguneko patera bat, eta hauek dira horietako batzuk, berehalaxe Irunera etorri direnak". Irungo (Gipuzkoa) San Juan plazako itzalpe txiki batean plastikozko mahai baten bueltan dago Josune —ez du abizenik eman nahi—: "Ia hemen bizi naiz", dio irribarrez. Harrera sareko bertze bi kide ditu ondoan, eta etorri berriak diren bortz gizon ginear aldamenean, harrera sareko bertze emakume baten azalpenak entzuten. "Informazio turistikoa ematen diegu: nola iritsi Baionaraino", azaldu du Ion Aranguren harrera sareko kideak. Lapurdi eta Gipuzkoaren arteko muga igaro eta Hendaiara ailegatzea ez baita nahikoa: han Poliziak harrapatuz gero, "itzuli" egiten dituzte migranteak Irunera: "Zubian uzten dituzte". Baionara iritsita, segurtamen handiagoa dute: "Aterpetxe bat dago haientzat; zailagoa da handik bidaltzea". Ondoren Frantzia iparraldera joateko geldialdi bat da Baiona, gehienentzat. "Handik aurrerakoa ja euren kontua da".

Itxialdi hertsia bukatu eta gutxira jarri zuten berriro martxan harrera gunea Irungo erdigunean, etorri berri direnei laguntzeko: "Konfinamendua bukatu eta hurrengo egunean". Josunek azaldu du "harrituta" zeudela hasieran, migranteak arazorik gabe iristen hasi baitziren Espainiako hainbat lekutatik Euskal Herrira: "Bigarren fasean ginenean, ezin zenean probintzia batetik bestera pasatu, ja jendea Irunera iristen hasi zen!". Poliziak bidaiatzen uzten ziela azaltzen zieten migratzaileek:
- "'Nora zoazte?'
- 'Irunera'
-'A, ba segi'".

Itxialdiaren faserik gogorrenetan ere izan dira Iruneraino iritsi direnak, ordea. Eta aitzina segi dutenak: "Konfinamenduko lehenengo egunean bagenekien Irungo aterpetxean zeudela hamabost bat mutil. Konfinamendua

> Testu hau Maddi Ane Txoperena Iribarrenek Berria egunkarian 2020ko abuztuan publikatutako zuen, Irungo Harrera Sarearen inguruko erreportai sorta baten barruan. Beste errportaiak hemen dituzue eskuragarri: https://labur.eus/Talaia_IrunHS

hasi zen, eta desagertu egin ziren", dio Arangurenek. "Horrek esan nahi du aurrera jarraitu zutela lehenengo bi egunetan". Hendaiaranzko muga gurutzatzen ere ikusi zituen harrera sareko bertze kide batek: "Gau pare bat egin nituen Santiagon, eta zubi zaharretik pasatzen ziren. Obrako langa saltatu, eta...". Aranguren: "Konfinamendua iritsi zenean, emakumeak harrapatu zituen herriren batean edo bestean". Aterpeetan igaro dute emakume gehienek konfinamendua, haren ustez. "Baina mutilak ez zeuden inon: jarraitzen zuten. Pasatu dira, eta oso gutxi gelditu ziren bidean". Emakumeak etortzen ari dira orain, berriro mugitzen hasi direlako, Josuneren arabera: "Emakume guztiak Kanarietatik etorri dira. Pasatu dituzte hiru hilabete han konfinatuta, eta orain hasi dira hona bidaltzen". Maleta handiekin datoz, hilabeteotan trasteak pilatuta, eta ume txikiak gainean: "Gizonak baino gehiago iristen ari dira".

## EMAKUMEEN "PREZIOA"

Arangurenek azaldu du ezberdinak direla emakumeek eta gizonek egiten dituzten migrazio ibilbideak: gizonak gehiago doazela euren kabuz, eta emakumeak, berriz, pasatzaileen bidez. Harrera sareko kidearen arabera, horren gibelean dagoena bortxaz beteriko zulo ilun bat da. "Batzuek urteak behar dituzte bidea egiteko, eta iristen dira edo haurdun, edo ume txikiekin. Kontuak ez dira ateratzen". Iritzi berekoa da Josune: "Etxetik ateratzen direnetik iritsi arte ordaindu egiten dute. Prezio ezberdinak". Baina ez dute ia sekula kontatzen zer ordain: "Euren bidaiaren prezioa gizonena baino garestiagoa da, eta, are, gizonek ordaintzen ez duten prezio bat ordaintzen dute". Bertzeak bertze, bortxaketena. "Neska batek kontatu zuen bortxatu zutela. Haurdun zegoen, eta oso gaizki ari zen pasatzen: ez zuen nahi barnean hazten ari zitzaiona. 19 urte zituen". "Baina ez dute ezer kontatzen, eta ez zaie galdetzen", gehitu du harrera sareko bertze batek. "Noizean behin batek kontatzen du: adibidez, neska horrek. Baina kontuak ez dira ateratzen, eta irudikatzen duzu". "Onartuta" daukate bidea "gogorra" izanen dela, harrera sareko kideen ustez: "Kontuan izan bidaia guztiak direla oso gogorrak, eta hemen ikusten dituzunean... ez du ematen traumatizatuak daudenik". Irriz aritzen direlako, eta kontu kontari: "Autodefentsa bat da".

2018ko oldearekin alderatuta, gutxiago dira orain etortzen ari diren gizon-emakumeak: "Tantaka datoz", dio Arangurenek. "Konfinamendua bukatuta, hasieran egun pare batez 30 lagun iritsi ziren, eta uste genuen berriro etorriko zela 2018koa", Josunek. Orain, ordea, batez bertze hamar lagun iristen dira aste barneko egunetan, eta hogei bat asteburuetakoetan. Gineakoak dira gehienak, eta Malikoak eta Boli Kostakoak ere anitz. Irungo geltokian egiten diete lehenik harrera; Gurutze Gorriraino laguntzen diete; eta, biharamunean, Irungo plazara gonbidatzen dituzte, segitu beharreko bideari buruzko azalpenak jasotzera.

> «Itxialdiaren faserik gogorrenetan ere izan dira Iruneraino iritsi direnak.
>
> Poliziak bidaiatzen uzten zien (...): "-'Nora zoazte?' -'Irunera' -'A, ba segi".
>
